



1985eko abenduaren 17an, Batzar Nagusiak abenduaren 5ean, urtero, Boluntarioen Nazioarteko Eguna ospatzera gonbidatu zituen gobernuak, eta boluntarioen ekarpenaren garrantziari buruzko kontzientzia handiagoa lortzeko neurriak har zituzten bultzatu zituen; horrela, gizarte-egoera guztietako pertsonak, bai norbere herrialdean bertan bai atzerrian, euren zerbitzuak eskaintzera akuilatuko zituzten.

Egun hau aukera ezin hobea da boluntarioek eta euren erakundeek burututako ahalegin guztiak eskertzeko, bai eta euren balioak sustatzeko eta euren komunitateetan lortzen dituzten gauza guztiak ezagutarazteko. Lankide askok pentsatuko dute Gizarte Hezkuntzak ihes egin behar duela boluntariotzatik, eta gizarte zerbitzuen egituraren profesionaltasunerantz eta gure irudiaren aitortzen handiagorantz egin behar dugula aurrera.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar gutako askok boluntario gineela erabaki genuela gizarte eragile izan nahi genuela eta, gaur egun, gizarte hezitzaile asko, gure lanbide jardunetik haratago, sozietate zibilean inplikaturik gaudela (sindikatuetan, auzo elkarteetan, eskubideak aldarrikatzeko kolektiboetan, e.a.). Boluntariotza eta parte-hartze soziala ardatz garrantzitsuak dira gure lanaren xede diren komunitateetan eta beroien garapena bultzatu eta sustatu behar dugu, ikuspegi kritikoa eta eraldatzailea erabiliz.

Boluntariotza aukera bat da ondoan ditugun pertsonak gizarte sareetan sartzeko eta gure lanaren xede diren komunitateetan aldaketa kritikoa eragiteko. Gure lanbide-irudiaren profesionalizaziorantz eta aitortzen aurrera egitea ez da boluntariotza eta sozietate zibila bultzatu eta horretan laguntzarekiko bateraezina.

Garai honetan, Elkargoak ez du boluntariotza sustatzeko orientabide zerbitzurik; bestaldetik, esan gabe doa, arlo honetan EAEn hihilbide luzea dagoela: aipagarria dira lurraldeetako boluntariotza agentziak (BATEkin, Bolunta y Gizalde), edonor haiengana jo ahal du sostengua eta laguntza eske.

**GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN
KONTSEILU NAGUSIA**



**GIZARTE HEZKUNTZAKO ESTATUKO VIII. BILTZARRA
Zaragoza 2020ko apilaren 16tik 18ra**

INSKRIPIZIOAK

Elkargokideentzat Elkargoaren bitartez VIII. Biltzarrerako taldeko inskripzioa aukera merkeena da.

Izen-emate **inprimakia** Elkargoari eskatu beharko duzu ceespv@ceespv.org eta bete eta gero, ordaiketa ziurtariarekin batera, Elkargora atzera bidali. Urtarrilaren 13tik prezioa igoko du.

PROGRAMA

[GIZARTE HEZKUNTZAKO ESTATUKO VIII. BILTZARRAREN PROGRAMA](#)

EKARPENAK

<http://www.congresoeducacionsocial.org/>

VIII. Gizarte Hezkuntzako VIII. Biltzarrerako ekapenak eta epeak bidaltzeko honako hauek dira:

- Urtarrilaren 15ra arte **KOMUNIKAZIOAK** bidali ahal dituzue.
- Urtarrilaren 15ra arte **POSTERRAK** (posterrak, kartelak, bideoak, ...) bidali ahal dituzue.
- Otsailaren 15a baino lehenago **ESPERIENTZIAK** bidali ahal dituzue.

RES EDUSO

<http://www.eduso.net/res/29/articulo/educacion-social-y-juventud>

Gizarte Hezkuntza eta Gasteriari buruzko RES, Revista de Educación Social, 30. zenbakia, artikuluak bidaltzeko 2020ko urtarrilaren 15ra arte epea zabalik dago.

GHEE-CESPVREN BERRIAK

- **Lanbidearen Sustatze eta Defentsa**

2019/12/16 Ermua Udalarari Gizarte Politika (Lan orientabidea) Teknikarien lan-poltsarako Gizarte Hezitzaile titulazioa onartzeko gutuna bidali. Eskaria onartua izan zen.

- **Barneko Lana** (Gobernu Batzordea eta Lan Batzordeak)

Etika eta Deontologia Batzordeko lagunak azaroan eta abenduan bilera bana egin dute. Bilera bakoitzean landu dena Elkargoko gizarte sareen bitartez informatu dugu.

Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren Dekretuaren jarraipenerako Batzordeko azaroaren 21 eta 25ean eta abenduaren 10ean elkartu dira. Abenduaren 17an Gizarte Zebitzuei buruzko Zorroaren garapena ezagutarazteko eta profesionalak sisteman parte hartzerena ezagutzeko galdesorta bat elkargokideei bidali zen.

Gobernu Batzordea 2019/ 11/ 12 elkartu da.

- **Elkargoko Administrazioa**

GHEE-CEESPVko Pribatutasun Politikarekiko onespena. Elkargoaren pertsonal izaerako datuei buruzko pribatutasun politika onesteko zegoen elkagorkide %80ak dagoeneko emalez egiaztatu du. Elkargaok dituen pertsonal izaerako datuak indarrean dagoen arautegiaren arabera tratatzeko Elkargoko Pribatutasun Politika onartzeko eskaria emalez jasotzen duten elkagokideek ontza emateko eskatzen diegu.

- **Instituzio Harremanak eta ordezkaritza (foroak, bilerak, ...)**

2019/12/10 Gizarte Zerbitzuko euskal Kontseiluko Haurrak eta nerabeak zaintzeko batzorde iraunkor sektorialearen bileran gure Elkargoko ordezkariak parte hartu zuen.

2019/12/18 Bizkaiko Psikologien Elkarteko ordezkariakin bilera elkarren artean hobeto ezagutzeko eta Esku-hartzeko lanbide Elkargoaren artean harreman egongorrrak antolatzeko.

- **Jardunaldi eta mintegietan parte-hartzea**

2019/11/06 EHU/UPVko Bilboko Hezkuntza Fakultateko Gizarte Hezkuntzako 4.mailako ikasleei ikasketak amaitu ondoren lana nola bilatu elkarrizketa burutu zen.

2019/11/16 Ikuspegi feminista Gizarte Hezkuntza esku-hartzean jardunaldian Deustuko Unibertsitateak antolatua Elkargoak lagundu zuen.

05/12/2019 Deustuko Unibertsitateko Gizarte Hezkuntza eta Gizarte Laneko 5.eko ikasleei Elkargoa aurkeztu.

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA**IKUSPEGI FEMINISTA GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOKO ESKU-HARTZEAN**

Azaroaren 20an, Ikuspegi Feminista, Gizarte eta Hezkuntza Arloko Esku-hartzean jardunaldiak izan ziren Bilboko Deustuko Unibertsitatean, Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoaren eskutik, Psikologia eta Hezkuntza Fakultateak antolatuta. Jardunaldi hauen xedea zen Feminismoa eta ikuspegi feminista Gizarte eta Hezkuntza arloko Esku-hartzean nola sartu eta horri buruzko hausnarketa egitea. Horretarako, hainbat gizarte-erakunde izan ziren bertan: Hirusta elkarte, IHESaren aurkako Bizkaiko Herri Batzordea, Askabide, Amuge-Euskadiko Emakume Ijitoen Elkarte, Zubietxe- gizarteko bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako elkarte, e.a. Erakunde eta mugimendu hauetako 16 hizlarik euren analisiak, jardunbide egokiak eta esku-hartze feminista bat praktikan jartzeko garaian sortzen zaizkien zailtasunak eta erronkak partekatu zituzten.

Hauek izan ziren, besteak beste, jorratu zituzten gaietako batzuk, zeintzuk, behin amaitutakoan, debaterako hizpide izan baitziren: Gizarte-berrikuntza, gizarte esku-hartze eraldatzaile gisa; bazterretako pertsona eta kolektiboak ikusgarri ipintzea, ikuspegi feminista eta sekzio artekoa erabiliz; hezkuntza, generoa eta irisgarritasuna; indarkeria lehenengo harreman afektiboetan; gizarte-bazterkeria larrian bizi diren emakumeekin eginiko esku-hartzea, gizarte eta osasun ikuspegitik; nola sartu sexu eta genero dibertsitatea jarduera feministetan gizarte esku-hartzeetan, nerabezaroa eta generoak: matxismorik eta heldukeriarik gabe lagun egitea; babes eskatzaileei lagun egitea; arrisku jokaerak dituzten nerabeekiko esku-hartzean genero ikuspegia; gizarte eta hezkuntza ekintza, ijito ikuspegia kontuan hartuta; emakumea eta prostituzioa, isilarazitako kolektiboa den aldetik; gizarte bazterkerian dauden emakumeak; Feminismoa eta gizarte esku-hartzea, e.a.

Gainera, espazio honi esker, hainbat hausnarketa partekatu ziren, Feminismoaren eskutik izandako geure hazkuntza pertsonalari, profesionalari eta politikoari buruz hitz egin zen. Deseraikitze eta eraikitze pertsonalerako prozesu batean lanean jarraitu ahal izateko espazioa izan zen, eta, berdintasun eragileak eta Gizarte Hezkuntzako profesionalak garen aldetik, gure jardueran dauden arrakalak antzematen laguntzekoa.

Bistakoa da une honetan Feminismoari esker genero berdintasunaren ikusgarritasuna eta garrantzia presenteago dagoela gure jendartean. Hala ere, beharrezkoa da presentzia hori hutsala izatera ez iristea; ez dugu nahi espaziorik non genero transbertsalitatea irudi garbiketa gisa erabiltzen den, diru-laguntzak exijitzeko aitzakia gisa, eta berdintasun plana tiraderan gorde eta bertan edukitzeko soilik sortu den. Egia esan, hau beste une batean sakontzeko beste gai bat litzateke.

Leiva, Martín, Vila era Sierrak (2015) esan zuten moduan, eta saio honetan ikusi ahal izan genuen bezala, aurrerapen handiak gorabehera, genero ikuspegia bigarren mailako gaia da oraindik Gizarte Hezkuntzan. Generoa, sexu identitatea edo ikuspegi feminista

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

ez dira berariaz aitortzen eta gure lanbidearekin lotzen, beste eduki batzuk ez bezala: justizia soziala, aukera berdintasuna, gizarte bazterkeria, Zuzenbidezko Estatua, Ongizate Gizartea, e.a. Hezitzaile garen aldetik, heziketa benetan ikuspegi feminista batetik garatzeko, lan zorrotza burutu behar dugu, eta kontzientziarioa, generoan prestakuntza eta erakunde publikoen laguntza beharrezkoak dira horietarako. Gizarte Hezkuntzak bere antolamenduan, politiketan, estrategietan, esku-hartzeetan, programetan eta proiektuetan genero ikuspegi kementsu bat bermatuko duten erreferentziak behar ditu. Ikuspegi hori funtsezkoa eta ezinbestekoa da jendarte integral baterako gizarte-hezkuntza kritiko, bidezko eta eraldatzaileko.

Gizarte eta hezkuntza espazioak elkarrizketa eta interakziorako lekua izan daitezke, eta horiek egokienak dira bai gizonezkoek bai emakumezkoek ditugun genero-arauetan oinarritutako sozializazio prozesuen inguruan hausnarketa egiteko. Egokia da izateko beste modu batzuk gauzatu ahal izateko giroak sortzea, gure esku-hartzearen xede den pertsonak beldurrik gabe bere espezifikotasunak onartzeko gai garela senti dezan, profesionalak epaitu edo kanpoan utzi gabe (Hermosilla, 2019). Gainera, beharrezkoa izango da gure gizarte eta hezkuntza esku-hartzeetatik sexuaren araberrako estereotipo eta rolak esleitzeko joera baztertzen joatea. Bestalde, ezin ahaztu dugu lengoia inklusiboa erabili behar dugula, beharrezkoa baita inkontzienteki androzentrismoa transmititu eta femeninoa alde batera ez uzteko (Martín & Vila, 2015). Lengoiaren bitartez, genero berdintasunean oinarritutako harremani buruzko adierazpenak egin ditzakegu eta horiei buruz imajinatu, ulertu eta kontzientziatu ahal dugu.

Hori guztia gauzatzeko, beharrezkoa izango da Instituzioek, erakundeek, administrazioek eta unibertsitateek profesionalak, ikasleak e.a. sustatu eta horiei laguntza ematea, gizarte eta hezkuntza esku-hartzean ikuspegi feministari buruzko azterketa eta ikerketak egin eta bertan sakontzeko. Hori beharrezkoa da, ikuspegi hori oraindik ez baita oso ikusgarria ez azterketa edo analisi esparruan, ez eta sektore profesional zentrolean edo gizarte problematika nabarmenean ere (Ytarte, 2015).


Amaitu baino lehen, jardunaldi hauetan ere aipatutako deontologia-kodea ekarri nahiko nuke hizpidera. Funtsezko baliabidea da hau, heziketa ere ikuspegi etikoan oinarrituz buruztera eramaten gaituena. Honen bidez gure lanbidean egunez egun aurkitzen ditugun egoerei buruz hausnartu eta azterketa egin ahal dugu. Gizarte-hezitzaileen deontologia-kodea aztertzen badugu hirugarren atalean -32 artikulatu ditu- egiaztatu ahal dugu batek baino ez duela lanbidea generoarekin lotzen. Hala ere, orain gutxiko argitalpen batek jardun profesionala deontologia kode horretatik lantzen du eta genero ikuspegia neurri handiagoan hartzen du kontuan (Pantoja et al., 2018).

Behin hori guztia esanda, ez dezagun ahantz, lankide askok egunero gogorarazten diguten moduan, pertsonala politikoa ere badela eta, jakina, politikoa pertsonala dela. Egia esan, pentsatzen dut uste hau gizartearen aurpegia aldatzen joan den liberazio-mugimendu baten ideia sakon eta iraultzaileenetako bat dela. Beraz, hezkuntza, zientzia sozial kritiko eta fe-

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

minista izateko, askatasunaren bidez eraldatzailea izan behar duela uste dut, eta horretarako, hasteko, ekintzak berak ulertu egin behar dira eta, ondoren, horietako asko deserai-ki. Hala, gizatiartzen eta jendarte bidezkoago baten parte izaten lagunduko diguten erabakiak hartu ahal ditugun neurrian libretxoago izango gara.

Patricia Cardeñosa Iglesias.
Gizarte Hezitzailea, Famili eta Komunitate Esku-hartze arloan.
GHEE-CEESPVko Etika eta Deontologia Batzordeko kidea



Casado, Demetrio/
Fantova, Fernando H-
ACER Editorial 2019

Acción Voluntaria

La acción voluntaria más publicitada es la que realizan las entidades privadas no lucrativas: asociaciones, fundaciones, obras sociales... En este libro se muestra también la que llevan

a cabo, de modo no institucional, personas físicas, familias y redes comunitarias. En este libro se reseñan, algunas de ellas mediante apéndices monográficos, más de ochenta buenas prácticas pretéritas y actuales de acción voluntaria. Para la selección de las mismas, se aplicaron estos criterios: libertad de iniciativa y desarrollo, ausencia de lucro y aportaciones de valor especial, solidaridad no particularista y conformidad con las leyes.



REVISTA
DE EDUCACIÓN
SOCIAL

Ampliado al
15 de enero
de 2020 re-
cepción de
artículos al

próximo **número 30 de RES**, Revista de Educación Social dedicado a **Educación Social y Juventud**

Recepción de artículos y propuestas de colaboración en el e-mail: res@eduso.net



Indicadores de juventud 2019. Panorámica de la juventud de Euskadi = Gazteen adierazleak 2019. Euskadiko gazteen panoramika. Observatorio Vasco de la Juventud.

Esta investigación contiene Información referente a 112 indicadores, divididos en 7 dimensiones: demografía y población; educación; empleo y situación económica; emancipación y vivienda; salud; Ocio, cultura y deporte; y valores y actitudes. La

información que recogen estos 112 indicadores proviene tanto de fuentes primarias, es decir, de investigaciones que realiza el Observatorio Vasco de la Juventud, principalmente de la Serie Juventud Vasca, como de fuentes secundarias (EUSTAT, Departamentos del Gobierno Vasco, etc.).

**URRENGO BOLETINETAN SARTZEKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUN
ceespv@ceespv.org RA BIDALI AHAL DITUZUE. ERA BEREAN, ZUEN INTERESEKOA
DEN EDOZEIN ESPARRUTAN PARTE HARTZEKO GUREKIN HARREMANETAN JAR
ZAITEZTE.**